



“SAFER INTERNET DAY 2019” LEHIAKETAKO OINARRIAK

Badator Safer Internet Day lehiaketaren laugarren edizioa. Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egin du deia, Europar Batasuneko Safer Internet Programa barruan eta Internet Seguruaren Nazioarteko Eguna – Safer Internet Day (SID) delakoaren barruan. INSAFE¹ Sare Europarrak sustatzen du, Interneten eta teknologia berrien erabilera segurua eta arduratsua sustatzearren batez ere umeen eta nerabeen artean. Hauxe da 2019ko Safer Internet Day-rako proposatu den goiburua: ***Together for a better internet.***

8 eta 16 urte bitarteko adingabeak, gutxienez, ikaskideekin batera Interneten arriskuak prebenitzeko erabilera seguruari eta arduratsuari buruz hausnartzeko aukera edukitzea da helburua. Egokiena da irakasleek (edo hezitzaileek) gaian sakontzeko alde aurretik ikasleekin lana egitea eta horretarako, material lagungarriak erabil ditzakete.

Horrela, hezkuntza-komunitatea gonbidatu nahi dugu Safer Internet Day-an parte hartzera, ikasleekin hezkuntza-jarduera batzuk eginez. Zuen esperientziak sare sozialetan partekatu ditzakezue *traola* hauek erabiliz: #SID2019, #SID2019lehiaketa, #DíaInternetSegura edo #InternetSeguruarenEguna.

Interneten, mugikorren eta sare sozialen erabilera seguruan eta arduratsuan hezteko eta neska-mutilek tresna horietaz egiten duten erabileraz eztabaida sortzeko, hainbat baliabide erabil ditzakezue, baita Eusko Jaurlaritzaren egON LINE² gida pedagogikoa ere, teknologia berrien heziketa lantzeko egina; Haurrei eta nerabeei laguntzeko zerbitzuaren – 116111 Zeuk Esan – webgunean eskuratu daiteke (www.euskadi.eus/zeukesan).

Gelan egindako lanari amaiera bikaina emateko, ikus-entzunezko proiektu bat (edo batzuk) egitea eta oraingo deialdi honetara aurkeztea proposatzen dizuegu. Proiektuak ondorengo baldintzak bete beharko ditu.

1. PROIEKTU-GAIK ETA PROIEKTU-MOTAK

Euskal neska-mutilen artean Interneten erabilera segurua eta arduratsua sustatzeko antolatzen da lehiaketa hau. Lehiakideek ikus-entzunezko batzuk sortu beharko dituzte, aurtengo goiburua erabiliz: ***Together for a better internet. Elkarrekin Internet hobe baten alde.***

Edizio honetako goiburura egokitzen den **ikus-entzunezko labur bat** aurkeztu beharko da eta, dena den, Interneten, mugikorren eta sare sozialen erabilera segurua eta arduratsua gaiarekin lotuta egon beharko da.

Proiektuak hezigarriak izango dira, hau da, erabilera seguruan eta arduratsuan hezteko baliagarriak izan beharko dira. Lehiakideek beraien proiektuekin erakutsi ahal izango dute haiek ere proposamen interesgarriak dituztela besteekin partekatzeko.

¹ INSAFE: <https://www.betterinternetforkids.eu/>

² egON LINE gida: <http://www.euskadi.eus/irakasleak-zeuk-esan/web01-a2zeukes/eu/>



Gelan egindako aurretiko lanaren edo eztabaidaren ondorioz, proiektuek, denon artean Internet seguruagoa sortzeko eta erabilera-ohitura osasungarriak sustatzeko sor daitezkeen praktika onak, gomendioak, ideia berritzaileak edo proposamenak erakutsi ditzakete. Baita, baliabide didaktikoak eta eztabaida edo gogoeta nola landu diren ere.

Edozein adierazpide edo diziiplina artistiko onartuko dugu (musika, antzerkia, dantza, performantza, *mannequin challenge*...), baina, hori bai, ikus-entzunezko formatuan aurkeztu behar da beti (irudia eta hotsa).

2. PARTE-HARTZAILEAK

Nork parte har dezake? **Lehen Hezkuntzako 3.aren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4.aren artean ikasten duten EAeko adingabeek**, helduren batek lagunduta (tutorea).

Bi kategoriatan parte hartu daiteke:

- 1go kategoria: Lehen Hezkuntzako 3. eta 6. ikasturte bitarteko neska-mutilak (ikastetxetik edo aisialdi-elkartetik parte har dezakete).
- 2. kategoria: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1go eta 4. ikasturte bitarteko neska-mutilak (ikastetxetik edo aisialdi entitatetik parte har dezakete).

Taldeka parte hartu behar da. Taldeak horrela sortu beharko dira:

- **Ikastetxeetan**, gelaka parte hartu behar da. Gela bakoitzeko ikasleek partaidetza talde bakarra osatuko dute.

Azalpen-oharra 1: Ikasturte edo kurtso bakoitza hainbat gelatan banatuta egon daiteke (adibidez: 3.A eta 3.B), horietako gela bakoitzak partaidetza talde independente bat osatuko du (adibidearekin jarraituz: 3.A gela partaidetza talde bat izango da eta 3.B gela beste partaidetza gela bat izango da).

Azalpen-oharra 2: Ikasgai batzuentzako, adibidez informatikarako edo teknologiarako, gela espezifikoa sortzen da eta, egia esan, gela espezifikoko horretan gela desberdineko ikasleak batzen dira. Hala ere, lehiaketa honetan parte hartzerakoan kontuan hartu ikasgai horietarako sortzen diren gela espezifikoek parte hartu ahal izango dutela partaidetza talde modura (adibidez: Informatika-DBH3).

- **Aisialdi-elkarteetan**, honela osatu daitezke taldeak: Gehienez ere 25³ neska-mutilez osotutako taldeak izango dira. Talde bakoitzak adin eta ikasturte ezberdinetako neska-mutilak izan ditzake, baina denak kategoria berekoak. Talde batean dauden neska-mutiletako batzuk 1go kategoriakoak baldin badira eta beste batzuk 2.ekoak, talde horrek 2. kategorian parte hartuko du derrigor.

Talde bakoitzak tutore bat eduki behar du inskripziorako eta komunikazioetarako, proiektuan laguntzeko, jarraipena egiteko eta lehiaketako baldintzak betetzen direla ziurtatzeko.

³ Ikastetxeetako taldeen antzera ibiltzeko jarri dugu gehienezko kopuru hori.



3. GEHIENEZ ERE ZENBAT PROIEKTU

Partaidetza talde bakoitzeko gehienez ere 4 proiektu aurkez daitezke. Ikus-entzunezko proiektu gehiago egiten badituzue, 4 aukeratu behar dituzue, irabazteko aukera gehien dituzten 4rak, eta horiexek aurkeztu.

4. PROIEKTUEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Proposamen orijinalak aurkeztu behar dira; ez plagiorik ez beste inori ostutako ezer.

Proiektuak lehiaketa honetarako sortua behar du izan eta interneteko erabilera segurua izan behar du gaia. Lehenago beste lehiaketa batera aurkeztu gabea behar du izan.

Ikus-entzunezkoak euskaraz, gaztelaniaz edo ele bietan aurkeztu daitezke. Aukeran, euskaraz.

Iraupena, berriz, ahal izanez gero gehienez 2:00 minutukoa izango da, eta dena dela, epaimahaiak ez ditu baloratuko 2:30 minutuko iraupena gainditzen dituzten proiektuak (baina, nahi izanez gero, lehiaketaz kanpo aurkez daitezke).

Hobe musikak egile-eskubiderik ez badu (onena da copyleft lizentzia izatea edo zeuok sortzea).

Bideoaren audioak kalitate nahikoa ez duenean, azpigituluak jartzea gomendatzen da.

Proiektu guztiak ikus-entzunezko formatuan aurkeztu behar dira, YouTube plataformara igoko dituzue, eta, gainera, e-mail bat bidali beharko duzue, parte hartzeko beharrezko datuak emateko (6. puntuan jasota dagoen bezala).

5. PROIEKTUAK AURKEZTEKO EPEA

Lehiaketa 2019ko otsailaren 5ean hasiko da (Safer Internet Day), eta 2019ko apirilaren 15ean amaituko (bi egunak barne). Lehiaketak irauten duen bitartean igo beharko dituzue ikus-entzunezko proiektuak YouTubera. Eta datuak emateko e-maila ere lehiaketan aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean bidali behar duzue.

6. NOLA PARTE HARTU

Taldearen tutoreak proiektua YouTubera igo behar du (aukeran, hobe ikastetxeak edo aisialdi-taldeak sortutako kanal batera); eta, gainera, e-mail bat bidali beharko du saferrinternetday@euskadi.eus helbidera, informazio hau emanez:

Ikastetxearen/Aisialdi-elkartearen izena:

Helbidea eta Udalerrria:

Parte hartzen duen taldea (Gela/Aisialdi-taldea identifikatu):

Zenbatak osatzen duten taldea:

Zein kategoriatan parte hartzen duen:

Proiektuaren izena:

Proiektuaren esteka:

Nor jarri duzuen kontakturako (tutorea):

Telefono-zk.:

Helbide elektronikoa:



Web, Facebook, Twitter... (nahi izanez gero):

Ikastetxearen edo aisialdi-elkartearen ardura da adingabeek behar dituzten baimenak kudeatzea (1. ERANSKINA).

YouTuben ere agertu behar dute datu hauek (bideoaren deskripzioan): proiektuaren izenburua, parte hartzen duen taldea, ikastetxearen edo aisialdi-elkartearen izena, udalerrria eta parte hartzen duen kategoria.

7. SARIAK

Lehen kategoriako saria: Irabazten duen taldeak jolas-jarduera bat irabaziko du, joan-etorria barne.

Bigarren kategoriako saria: Irabazten duen taldeak jolas-jarduera bat irabaziko du, joan-etorria barne.

Horrez gain, talde irabazleek diploma bat jasoko dute, eta haien tutoreak opari bat izango dute.

Parte hartzen duten neska-mutil guztiek lehiaketaren txapa bana jasoko dute.

8. EPAIMAHAIA

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak izendatuko ditu epaimahai-kideak, adingabeei Internet eta teknologia berriak seguru erabiltzen irakasteko ardura daukatenen artean edo Adingabeen eta Interneten Euskal Sareko kide direnen artean.

9. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Kalitate teknikoa edo artistikoa baino gehiago, aspektu hauek baloratuko dira: edizio honek duen lemara egokitzapena, mezua, gogoeta eragiteko gaitasuna eta proposamenaren originaltasuna.

Hala ere, baloratuak izan daitezten, audioari dagokionez gutxieneko kalitatea izan beharko dute edo, kalitaterik ezean, azpituduluak izan beharko dituzte.

Horrez gain, kontuan hartuko dira hizkuntza ez-sexistaren erabilera eta neskek eta mutilek berdintasunez parte hartzea, baita euskararen erabilera sustatzea ere.

10. EPAIMAHAIAREN ERABAKIA

Finalerako proiektuak aukeratzea (apirilaren 16tik maiatzaren 1era):

Proiektuak aurkezteko epea amaitzen denean, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak proiektu guztiak YouTuben jarriko ditu, lehiaketa honetarako sortutako kanal batean: SAFERINTERNETDAY EUSKADI. Hartara, nahi duen edonork ikusi ahal izango ditu.



Epaimahaiak, aurkeztu diren lan horiek denak aztertu, eta kategoria bakoitzetik 4 aukeratuko ditu finalerako, 9. puntuko balorazio irizpideak erabiliz. 2019ko maiatzaren 1ean argitaratuko dira finalera iritsi diren proiektuen izenak, web honetan: www.euskadi.eus/zeukesan

Antolakuntzak finalera iritsi diren proiektuen tutoreekin kontaktatuko du eta jatorrizko bideoak eskatuko dizkie.

Proiektu irabazleak aukeratzea (maiatzaren 2tik 10era):

Finalera zein proiektu iritsi diren argitara eman ondoren, kategoria bakoitzeko irabazlea aukeratuko du epaimahaiak. Balorazio honetarako, berriz ere 9. puntuko irizpideak erabiliko ditu eta, bestalde, jendeari gehien zein gustatu zaion ere kontuan eduki ahalko du epaimahaiak (YouTuben zenbat “like” edo “gustatzen zait” duen).

Irabazleen izenak sarien banaketa-ekitaldian jakinaraziko dira; Gasteizen, 2019ko maiatzaren 10ean. Finalera iritsi diren gela edo aisialdi-talde guztiak gonbidatuko ditugu banaketa-ekitaldi horretara. Web honetan ere argitaratuko ditugu: www.euskadi.eus/zeukesan.

Epaimahaiaren erabakiak eztabaidaezinak izango dira; ezingo da haien aurka egin.

Safer Internet Day 2019 lehiaketako sariak banatzeko ekitaldi horretan, finalera iritsitako lanak ikusiko ditugu eta kategoria bakoitzeko irabazlearen izena argitaratu ostean sariak banatuko ditugu.

11. LEGE-ARLOKO KONTU BATZUK

Eskubide-kontuak: proiektuak publikoki komunikatzeko, erreproduzitzeko, zabaltzeko edo eraldatzeko eskubideak doan laga behar dituzte lehiaketan parte hartzen dutenek. Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak erabil ditzake, katalogoetan, karteletan edo sustapen-piezetan, adingabeek Internet eta teknologia berriak seguru erabil ditzaten sustatzeko, edo proposamenak argitara emateko www.euskadi.eus/zeukesan web orrian, sare sozialetan duen komunikazio-kanalean edo Irekian www.irekia.euskadi.eus.

Antolakuntzak eskatzen badu, partaideek beren obra banaketa-ekitaldian erakutsi, jo (musika) edo antzeztu beharko dute.

Parte-hartzaileek bidalitako proposamenen batek beste inoren egiletza-eskubideak urratzen baditu, antolaketak ez du inongo erantzukizunik izango; eta, erreklamaziorik baldin badago, proposamena bidali duena izango da erantzule bakarra. Gainera, antolaketak eskatzen badie, parte-hartzaileek gai izan behar dute lana beraiek egin dutela erakusteko.

Lehiaketa-antolatzaileek sariak hutsik deklaratzeko eskubidea izango dute.

Ikus-entzunezkoren bat iraingarria bada edo ez badu lehiaketaren helburua betetzen, antolaketak eskubidea du ezabatzeko.

Deialdi honetan aplikatzekoa izango da 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoa bete beharrez (15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa), jakin ezazue ezen ematen dizkiguzuen datu pertsonalak antolakundeak bere fitxategi automatizatuetan sartuko dituela, bere eskumenen esparruan dituen zereginak ahalbidetzeko. Nahi baduzu, zure esku duzu datuak ikustea eta haien zuzentzea edo ezabatzea edo haien aurka egitea. Hemen eskatu: safinternetday@euskadi.eus.



12. ANTOLAMENDUA

Antolatzaile: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila; bultzatzaile: Adingabeak eta Internet Euskal Sarea; eta laguntzaile: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila.

Informazio gehiago: www.euskadi.eus/zeukesan

Nahi baduzu, saferinternetday@euskadi.eus helbidean gaituzu, edo deitu 945 019 361 zenbakira.



1. ERANSKINA

AMAREN, AITAREN EDO TUTOREAREN BAIMENA, ADINGABEAK SAFER INTERNET DAY 2019 LEHIAKETAN PARTE HARTU DEZAN.

Aitaren/Amaren edo tutorearen datuak (alegia, adingabearen legezko ordezkariak):

Izen-abizenak:; NAN:

Izen-abizenak:; NAN:

Helbidea:

Telefono-zk.:

Adingabearen datuak:

Izen-abizenak: Adina:.....

ADIERAZTEN DUGU:

Bete behar eta bete nahi dugula 1/1982 Lege Organikoa, maiatzaren 5koa, Ohorerako, Norberaren eta Familiaren Intimitaterako eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilar buruzkoa; eta, horretarako,

BAIMENA EMATEN DUGULA, BERARIAZ, gure seme edo alaba (e)k parte hartu dezan Safer Internet Day 2019 Lehiaketan, eta onartzen ditugula harako jarrita dauden oinarriak. Lehiaketaren gaia: Interneten eta teknologia berrien erabilera segurua eta arduratsua sustatzea umeen eta nerabeen artean.

Eta halaxe sinatzen dugu, ados gaudela erakustearren

.....(e)n,koren(e)(a)n.

*Umearen edo nerabearen guraso-agintea dutenek sinatu behar dute baimena (bi badira, biek; bakar batek badu guraso-agintea, nahikoa da haren baimena). Egitatez edo legez bananduta badaude edo dibortziatuta badaude, zaintza duenak beharko du sinatu.